



# EGUZKILORE

Cuaderno del Instituto Vasco de Criminología.  
San Sebastián, N.º 5 extraordinario - Diciembre 1992.

## ***“Droga, Bioética y Política”***

<b>Presentación.</b> Desde el Centro Internacional de Investigación	5
<b>SYMPOSIUM INTERNACIONAL: “Atención al drogadicto”</b>	9
• <b>J. Castaignede.</b> Estrategias de apoyos preventivos	11
• <b>T. Firchow.</b> Toxicomanía y normativa legal en Francia	17
• <b>J. Giménez.</b> Alternativas sociales	27
• <b>J. Hurtado.</b> Consumo y prevención en el Perú	35
El consumo de drogas y su prevención en Suiza	45
• <b>A. Messuti.</b> Alternativas a la privación de libertad	71
• <b>J. Pardo.</b> Alternativas sociales	77
• <b>G. Zabaleta.</b> Servicios comunitarios, apuesta de futuro	81
<b>CURSO DE VERANO: “Criminología y Bioética”</b>	85
• <b>A. Beristain.</b> ¿La ética civil supera a la eclesial?	87
• <b>F. Goñi.</b> DNA y Herencia: Problemas éticos	97
• <b>H.-G. Koch.</b> Ética médica y Derecho médico	113
El control de la natalidad y el Derecho Penal	123
Una muerte digna	133
• <b>C. M. Romeo.</b> Las respuestas del Derecho español	143
La utilización de embriones con fines de investigación	151
El diagnóstico preconcepcivo y el diagnóstico prenatal	159
• <b>G. Tamayo.</b> Criminología y Bioética	167
<b>CURSO DE VERANO: “Filosofía y Sociología políticas”</b>	171
• <b>A. Arteta.</b> Actualidad de Tocqueville sobre la democracia	173
Individuo y forma capitalista de su tiempo, según Marx	189
De la piedad y la política	209
• <b>A. Beristain.</b> El estado no tiene el monopolio de la violencia	227
• <b>J. R. Recalde.</b> Orden y Razón de Estado	239
Responsabilidad en un sistema de partidos	253
Autonomía del individuo y promoción de la “vida buena”	265
<b>MISCELANEA</b>	277
• <b>J. M. Rdz. Delgado.</b> Fundamento cerebral de las creencias	279
• <b>E. Ruiz Vadillo.</b> La Sociología jurídica	287
• <b>A. Beristain.</b> G. Kaiser Doktoareari Laudatioa	297
• <b>G. Kaiser.</b> Kriminologiaren betekizuna	313
• <b>VII Coloquio Inter-Asociaciones.</b> Crimen organizado	323

EGUZKILORE

Número Extraordinario. 5  
San Sebastián  
Diciembre 1992  
297 - 311

**PROF. DR. GÜNTHER KAISER, EUSKAL HERRIKO  
UNIBERTSITATEKO “HONORIS CAUSA”  
DOKTOREAREN LAUDATIOA  
LABURBILDUMA**

Antonio BERISTAIN

*Kriminologiaren Euskal Institutuaren Zuzendaria  
Donostia*

Egiteko erraz eta atsegina nirea, orain zuen aurrean adieraztea, zergatik Euskal Herriko Unibertsitateak eskatu dion Günther Kaiser Professoreari Doctor “Honoris Causa” izendapena onar dezala. Laburki, bi sentimendu prestutan laburbil daiteke: esker ona, beragandik iraganean zenbat hartu dugun ikustean (eta batez ere bere emazteak eta seme-alabek gurekin izan dituzten adiguritasun ugariak, Brisgoviako Friburgon egotea hain atsegin bihurtzen digutenak, nahiz eta etxekeogandik urrun egon) eta egoismo osasungarria, beragandik etorkizunean oraindik zenbat ikastea espero dugun ikusiz. Laburki azalduko dut ondoren gutako batzuek G. Kaiser nola ikusten dugun. Zer iradokitzen digun bere obrak gure aldean eta gure aldean. Kriminologian egin dituen ekarpenetako batzuei buruzko hausnarketa egitera mugatuko naiz gure aldi eta aldeko bere deontologiaren gogoeta pare batekin.

**CURRICULUM VITAE**

Günther Kaiser 1928ko abenduaren 27ean jaio zen Walkenried/Herzen. Gaur egun Brisgoviako Friburgon Kriminologia eta Zuzenbide Penaleko Katedradun da, Katedradun Berezia Kriminologia eta Zuzenbide Penalean Züricheko Unibertsitatean eta Max-Planck Institutuaren Zuzendari nazioarteko eta atzerriko Zuzenbide penalerako Brisgoviako Friburgon. Bere gaikuntzaren ondoren (1969) Institutu honetako bertako kide zientifikoa da.

*Studium generale* deritzona Tubingan egin zuen, eta Zientzia jurdikoetako *Studiama* Gotingan. Lehen Estatu-azterketa Zuzenbidean 1956an, bigarrena 1960an. 1962an, Tubingako Unibertsitatera sustatua. Zenbait urtez Baden-Württembergeko Justiziako Epaitegi Gorenean ari izan zen, 1963az geroztik Tubingako Unibertsitateko Kriminologi Institutuko kontseilari zientifiko eta Kontseilu Akademikoko kide izan da.

Bere liburu nagusienetako batzuk behin eta berriz argitaratu dira (bere *Kriminologiako Sarrera*-k bederatziz argitalpen izan ditu), eta hizkuntza desberdinetara itzuli da, besteak beste, gaztelania, txinera, italiara, japoniera eta errusierara. 1992ko martxora arte berrehun eta hirurogeita hamasei obra argitaratu ditu.

## KRIMINOLOGIA DIZIPLINARTEKOAGOA

Kaiserrek Kriminologiaren sustraiak, izandako aldaketak eta gaur eguneko eta etorkizuneko joerak aztertzen eta agerian jartzen ditu (Ikus 1. Grafikoa), batez ere bi munduikuskera nagusi: usadiozkoa eta modernoagoa. Objektibitatez aztertu ondoren biak uztartzen ditu, baina ez bien erdira etorritz, mozketak eginez, muturretatik luzatu eta ekarrek in paraziz baizik.

Usadiozkoekin oinarritzko puntu garrantzizkoak hartzen ditu, baina askiez eta aldrebestzat jotzen dituen beste batzuk baztertzen ditu: adibidez, delitu nozioa zentzu positibista onartzea (nahiz eta zibilborrestetat aitortzen duen eta oinarri-nozioetako bat bezala, baina kritika sakona egin ondoren).

Kriminologiaren kontzepzio modernoekin ekarpen ugari onartu ere egiten ditu, batez ere Kriminologia kritikorenak. Baina, Kaiserrek erne jokatzeko du ikuspegi dimentsiobakarrekotan, delitugilearen nortasuna, erruduntasun indibiduala, biktima eta kontrol juridiko-penala ahaztean eta abarretan ez erortzeko. Bilakaera zientifikoaren aberastasun ukazinari adi jartzen zaio eta "labeling approach" gizarte-erreakzioaren teoriaren horizontea hedatzen ahalegintzen da.

Ez du onartzen une eta herrialde jakin bateko legezko status quoa babesten duen Kriminologia juridikoa. Ez du defendatzen Zuzenbide penalaren baitan dagoen Kriminologia bat baizik eta bere autonomiaren alde jokatzeko du, bere bilakaera historikoan bultzatzen duelarik eta, batez ere, bere diziplinartekotasun osoan, 1. Grafikoa erakusten duenez.

Uste du usadiozko Kriminologia, gaur egun, meharregia gertatzen dela eduki-nean. Kaiserrek hedatu egiten ditu bere ikerketa eta egintza-eremuak gizabanako eta erakundeekin jokaeraren kriminalizazioa, arau legalak eta kontrol informala eta formala landuz, justiziaren administrazioa, arauak iragazki selektiboekin aplikatzean sortzen den tresnakuntza, prozesu penala eta bere emaitzen ebaluaketa, modulu juridikoa, ministerio fiskala barruan sartuz, inola ere ahaztu gabe biktima eta giza eskubideak, polizia duen portatzeko eraren ikerketa empirikoa eta ezagutza-zientzia modernoekin ekarpen paradigmaticoak; kriminalitate ekonomiko eta ingurugiroko, magnateen ustelkeria eta abarretan *lege ferenda* arretea bideratzen du.

Azken urteotan, batez ere *labeling approach* teoriak eta neomarxistak agertzean komunikazio-hesiak sortzen dira kriminologi eskola desberdinen artean aurrerapen



zientifikoa tratatuz, eta beren arteko elkarriketa eta elkarreragina ere. Kaiserrek hesi horiek gaintitzen asmatu du. Zehatzago esateko, ikerketa sozialen eta faktore biologikoetan oreka lortzea proposatzen du, ikuspegi biosozial bat bilatuz. Espainian bide honetatik dabilta, nor bere ñabardurekin, A. García-Pablos, E. Giménez-Salinas eta F. Muñoz Conde, besteak beste.

Bere horizonte-irekitzearekin, Kaiserrek aberastu egiten du eztabaida zientifikoa eta ondorio emankorrek eskaintzen ditu politika kriminallean aplikagarri direnak. Gai-pare bat jorratuko dugu laburtasunez: delitua, sozializazioa, gizarte-kontrol juridikopenala, drogak eta gazteria.

Kaiserrek onartzen ditu bere munduikuskeraren oinarrietan delitu-kriminalitatea, gizarte-arriskugarritasuna, erantzukizun penala, pertsonaren erruduntasuna eta sartzioa. Delitua era dinamikoan ulertzen da, kriminalizazioa eta kriminalitatearen ikuspegian, Medikuntza edo Estatistikatik datorren "desbiderapen" edo portaera desbideratu baino areago. Delituari sarrera emateko, Kaiserrek bere Kriminologiaren maila desberdinetan nozio berriak ezartzen ditu, usadiozko errealitate zientifikotatik oinarrituak, bai, baina errotik eguneratuak, batez ere ikerketa soziologiko eta psikologikoei esker; adibidez, portaeraren konformitate desberdinari esker, sozializazio eta gizarte-kontrol diferentziak batean oinarrituari, akritikoki teoria horiek onartu gabe. Hobbesek bere *Leviathan*-en proposatzen duen doktrina ahaztu gabe, ez du pertsonak zergatik delinkitzen duen bakarrik aztertzen, baizik eta arauzko portaera nola ikasten duen ere bai.

Kaiser, ñabardura batzuekin, determinismoa baztertzen dutenen taldean sartzen da trafiko-delitugile normal, idun zuriko ekonomi delitugile, merkataritza-lapur eta gatazkako delinkuenteei dagokienez. Baina modu askiezean, edo okerrago dena, garapen defizitario batengatik modu desbideratuan sozializatuak izan direnen kontra jartzearen arazo eztabaidagarria zuzentzen du arreta, izan ere horiek eraten bait dute birjausle eta autore intentsiboak erreklutatzen direneko potentziala. Horrek ez dirudi inondik ere halabeharrezkoa denik. Alderantziz, ikerketa guztiek beren arteko lotura kausal ezinbestekoak agerian jartzen dituzte. Hor daude megalopoliaren herbarrenetako zifrak, hirugarren munduan batipat<sup>1</sup>. Hor daude Elías Neuman, Luis Rodríguez Manzanera eta Eugenio Raúl Zaffaroniren berrespenak.

Sozializazioaren erdian Kaiserrek pertsona eta familia —gizartearen oinarri-zelula— "aurkitzen" ditu, nahiz eta inguruabar eta inguruabarreko guztiak ere aztertu behar direla dioen. Eta arreta berezia eskaintzen dio balio eta loturen barneratzeari. Irizpide nagusikoak transmititu behar dituzten eroaleak eta mekanismoak aztertzen ditu. Bere arreta, lehen unetik beretik, gizarte-gatazkara zuzentzen du (porrotaren pedagogia) familia, eskola, lanbide-ikaskuntzaren toki, adin gehiagoko taldeekiko erlazio, eliz elkarte eta mass medietara, 2. grafikoak erakusten duenez.

Jakina, sozializazio-prozesu hauek eteten badira edo porrot egiten badute asal-durak, portaera desbideratuak eta delituak eragiten dituzte aipaturiko esparruetakoren batean. Berorietara jo beharko da orden asaldaturak berreskuratu nahi bada (gauza

---

1) Ikus *Vergleichung als Methode der Strafrechtswissenschaft und der Kriminologie*. H.-H. Jeschek eta G. Kaiser-ek bildumatua, Dunker & Humblot, Berlin, 1980, 269, 274 orr.

ez da iraganekoa berrezartzea, baizik eta indar dinamiko handiagoa berreskuratzea). Marginatuaren eta/edo delitugilearen birsozializazioa/birpertsionalizazioa lortzen ahalgindu beharko da, egintza eta bizikidetzarako gaitasun osoarekin.

Kaiserren kezka, batez ere, gazteriaren sozializazioa/birsozializazioa da. Horregatik adierazten ditu gizabanakoak egin behar dituen urrats garrantzitsuak helburu horretara iristeko. Horregatik deskribatzen du bidea bere etapa nagusiekin: segurtasuna nobere baitan ikasi, kontzientzia eratu; errendimendu eraginkor eta etikoa motibatu; gatazkak era ekoizlean konpontzeko prestutasun eta gaitasuna; eta solidariotasuna.

## Gizarte-kontrol juridiko-penal berria

Kaiserren ekaropen/sorkuntza zientifikoen artean bere *Strafrechtliche Sozialkontrolle*, bere “gizarte-kontrol juridiko-penala” dago. Honez erruz gaintitzen du terminologia angloamerikarrak “Crime control” deitzen duena, alde batetik, eta “Social censure”, bestetik. Juridiko-penalki babesturiko arau-esparruan portaera-konformitatea lortu nahi duten erakunde, estrategia eta gizarte-santzio guztiak integratu eta sistematizatzen ditu.

Hau da, “legea eta ordena” edo “emantzipazio anarkikoa” *status quo* edo gizarte-aldaketaren artean aukera egin behar izatean, Kaiserrek portaeren hainbeste kontrola egituratzen du, non giza eskubideen eta askatasunaren lesio txikienarekin, lortzen duen —sisteman harmonizaturik— lehen mailako prebentzioa, elkartean burutzen dena, bigarren mailako prebentzioa, delinkitzeko joera duten pertsonena, eta hirugarren mailako prebentzioa, delitugileak birpertsionalizatzerazuzendua. Ez du santzio penalen premia ukatzen eta, beraien barruan, muturreko kasuetan, askatasungabetzea (zeinaren ondorio disuaditzaile eta birsozializatzailea txikitat daukan, baldin eta arreta handiz birpertsionalizazio-metodo zientifikoak erabiltzen ez badira), baina gero eta indar handiagoa aitortzen die prebentzio-teknikei.

Sakontze teoriko serio baten fruitu den kontrol hau Karibdis eta Eszilaren artean aurrera doan zerbait da, alde batetik, errebolta eta leherketa zakarrak sortzen dituen zurruntasun diktatorialari ihes egiteko, eta bestetik, zilegiortasun gehiegizkotik, anarkia eta kaoserako bidea irekitzen duenetik alde egiteko. Kontrol formalak (santzio penal eta polizialak) informalekin (familia eta eskolarekin) harmonizatzen ahalegintzen da. Eta elkartrukagarritasun eta malgutasun handi bat lortzen saiatzen da alternatiba ugaritan euskarriturik. Presondegri-instituzioetan ihes egin behar da presoan pilaketari eta nabarmen urritu askatasuna kendu zaien pertsonen portzentaia, batez ere prebentziorako presondegri-egoeran. (Ikus 3. grafikoa, zeinak erakusten duen europar herrialdeetan zenbat pertsona dagoen askatasunik gabe —100.000 biztanleko—, 1988ko irailaren 1. an; eta zenbatekoa den prebentziorako presondegri-egoeran daudenen kopurua).

Kontrolaren zehaztapen indibiduala maila legal, judizial eta presondegikoan egin behar da. Penak eta/edo neurri penalak betetzearen aldi desberdinetan lan-eremu zabala dute presondegri-kriminologoeak. (1979ko gure Presondegri-Lege Orokorren 281. art., 1984eko martxoaren 28ko Errege-Dekretuko testuaren arabera). (Ikus C. García Valdés). Instituzio informal batzuek ere egin dezakete hemen aldeztu den

kontrolaren zehaztapen pertsonala, hau da, Zuzenbide penala eta Kriminologiaren pribatizazio zuhur baten barruan. ("Zuzenbide penala eta biktima: Sistemaren pribatizatorantz?") gaiari buruzko Ihardunaldiak, Bartzelona, Centre d'Estudis Jurídics i Formació Especialitzada, abendua 1989).

Delitua edo delitugilea bera baino gehiago, kontrolaren kontzeptu berri honek gizarte-erreakzioa bera gehiago begiratzen eta aztertzen du, instituzio komunitario formal eta informalek ematen dituzten erantzun alternatiboak.

"Erantzun" hauek gizarte-kontrol orokorraren, politika kriminal eta sozial, polizia eta judikaturaren egitekoaren arteko bidagurutzean kokatzen dira zorionez kriminalitatea eta delitu deitzen den desordenua, gizarte-desbiderapenak diren beren "ingurmariak" barne direla, dinamikoki prebenitze/berrezartze-ihardueran.

Beraz, morala, zuzenbidea, zientziak, erlijioak, hezkuntza eta gizarte-terapia sartzten dira barruan. Baina, bereziki santzio eta zuzentze- eta segurtasun-neurriei (gehienetan askatasuna kentzen ez dutenei) kontu egiten zaie, sistema juridiko osoarekiko erlazioan.

Halaber, eginkizun nagusia aitortzen zaio kontrol-eroale gisa, polizia eta justizi administrazioarekin batera, iritzi publikoa, biktima, salatzaille guzti, probation-unean laguntzaile ta zaintzaile direnei eta abarri. Zoritxarrez, oraindik ez dugu lortu probazioa ezartzerik Espainian, nahiz eta kriminologo-talde handi bat sartu nahian gabiltzan aspaldian; adibidez, Bartzelonan izandako simposioan —*Nazioarteko Simposioa probation eta presondegiaren alternatiba diren beste neurri batzuen buruz. IRES eta Europako Kontseilua, 1983ko ekainean*—, orduan Justizi ministrari zen Fernando Ledesma klausuratua, Enrique Ruiz Vadillorena bezalako parte hartze inteligente eta ausartekin.

Arreta berezia eskaintzen dio Kaiserrek deskriminalizazioa, desinstituzionalizazioa, "dibertsioa" eta zor den prozesuari (due process), eskubide indibidualen bermeeikiko begirune zainduarekin.

"Dibertsio" izendapen zabalarenpean ihes egin nahi zaio ahal den neurrian usadiozko santzio juridiko-penalei eta baita aurretiazko prozesuari ere, nahiz eta ezarritako arauen kontrako infrakzioak detektatu, egiaztatu eta konstatatzeko ahalegin nabariak egiten diren. Herrialde batzuetan gero eta gehiago erabiltzen da dibertsioa, batez ere gazteen kasuan, zenbaitetan prozesuen % 45eraino iristen delarik.

Kaiserrek bere lanaren parte handi bat gizarte-kontrol juridiko-penal hau sortzen edo birsortzen eman du, hura teorikoki sakontzen, osotasun bat bezala egituratzen, sistematizatzen, multzo osoan integratzen, eta enpirikoki egiaztatzen. Bidezkoa da kontzeptu hau, Friburgoko katedradunak mamitua, nazioarteko terminologian onartua izatea, baita bere eskolaren iritzikide ez direnen aldetik ere.

## **Drogak eta gazteria**

Kaiserrek estimu eta ardura itxaropentsua du gazteriarekiko eta horrek erama ten du sarritan gazteen arazoak lantzerantz. Bere argitalpenetako askotan arduratzen



da, adibidez, drogak sortu duen hondamenaz. II Euskal Mundu-Biltzarraren Ekitaldi Nagusian ere agertu zuen hori<sup>2</sup>.

“Drogei buruzko legeria eta prebentzioaren ikuspegi konparatua. Drogak Zuzenbide penal konparatuan” ponentzia hartatik aztertzen duen gaia eta nola aztertzen duen interesatzen zaigu. Beste behin ageri da bertan bere ikerketa eta agerpenetan erabili ohi duen metodoa: arazoa orokorki deskribatzeik hasten da; historian eta geografian zehar izan duen bilakaera laburbiltzen du, gaur eguneko errealtate eta doktrinak desberdinak aztertzen ditu (txosten eta datu estatistiko ugariaren arabera), konstatazio enpirikotan sendo eta gertakari konkretuei buruzko gogoeta zientifikotan argudiatu ondorio batzuekin amaitzeko. Alderdi positiboak areago nabarmentzen ditu negatiboak baino, itxaropena ematen duena alderdi ezezkorra baino. (Arestian —*Universitasen*— argitara eman duen ustelkeriari buruzko eta kontrako artikuluan, beste behin, orain dioguna ageri zaigu.)

Ponentzia honetako ondorioen artean, argiro azpimarratzen du lehen, bigarren eta hirugarren prebentzioak areagotzea beste irtenbiderik ez daukagula; gainera, dio, arazoa aztertzen jarraitu beharra daukagu ezjakintasunean eta kontrol-sarea hedatzearen tranpan ez erortzeko. Dagoeneko lortu da, datu batzuen arabera, drogen kontsumo eta trafikoaren egonkortzea. Erabakizun gelditzen da noiz eta noraino droga guztiei eta/edo batzuei ateak zabaldu behar zaizkieneko auzia<sup>3</sup>.

Oraindik orain, zenbait aldizkaritan eta *Strafvollzug. Ein Lehrbuch* (Heidelberg, 1992) liburuan, Kaiserrek berriz ekin dio gaiari eta II Euskal Mundu-Biltzarrean esandakoa eguneratu du: portaera delitugile hau une bat gehiago besterik ez da gizarte babesgabetez edo desintegratze-prozesuan; drogak erabiltzeari batzuetan sistema elkartrukagarri baten garrantzia dagokio; adi egon beharra daukagu gazteak norabidez aldatu eta alkoholmorako joera hartzearen aurrean; delitugile askok gehiegizko alkohol-kantitateak irensten dituzte sarritan delituzko beren portaerak burutu baino lehen; gizarte- eta elkarte-errefusaketak eta komunikabideek ondorio nabarmenak lor ditzakete alor honetan.

Zutik dirau gure gartzelen barruan daudenen gehiengoa drogekin zerikusia duten infrakzioengatik bertaratu izanaren errealtatea negargarriak, bai Alemanian eta bai Espainian eta, zehatzago esateko, Euskal Herrian. Eta, bestalde, gazteriaz hitz egitean argi ibili behar da adin-estratu desberdinak kontutan hartzeko. 4. grafikoak, gartzelan dauden gazteen adinari buruzkoak, 1963tik 1989ra bitartean Alemanian gertaturiko bilakaeraren berri ematen du, 21 eta 25 urte bitarteko gazte infraktoreei buruz. Portzentaia aisa gaintzen du 14 eta 17 urte bitarteko infraktoreen kopurua, eta baita 18 eta 20 urte bitartekoa ere. Nahiz eta datuak Alemaniari buruzkoak diren, Espainian ere interesgarri zaizkigu ikerketa konparatiboak egiteko, eta gazteengan —eta beste hainbesterengan— drogak sortzen duen arazo honek gaur egun bi-

2) Ikus KAISER “*Models of prevention and the laws on narcotics in comparative perspective Drugs in international and comparative penal laws*”, II Congreso Mundial Vasco, Congreso de Drogodependencias. Análisis multidisciplinar, T. III, Servicio de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 1988, 47 or.

3) Ikus E. NEUMAN, *La legalización de las drogas*, Depalma, Buenos Aires, 1991.

laketze/gaztearen heltze-etapa desberdinak bereiztea eskatzen du, talde bakoitzak ageri duen hain infrakzio-kopuru desberdinarekin.

5. grafikoa, delitu-motei buruzkoa da eta Alemaniako presondegietan dauden pertsona gehienak drogarekin zerikusia duten infrakzioengatik daudela barruan erakusten du. Antzeko gogoetak egin behar dira Espainiaren kasuan ere. Duela egun gutxi, Ruth Alonso, presondegiko-zaindaritzako epaileak (Araba) Ocaño Nanklaresko gartzelan dauden barnetuen %89 mota honetako delituetatik datorrela.

## DEONTOLOGIA ANTIGONA ETA USTELKERIAREN ARTEAN

La beti —eta gaur ere bai— Kriminologia dimentsio deontologikoaren parean garatu izan da, gutxiasko bere oinarri, bere helburu eta beraietara iristeko bideei dagokienez. Gure klaustral berriak hiru alderdi hauek oso arreta bereziz zaintzen ditu.

Duela zenbait hamarkada bere obra, bere liburu eta Institutua ezagutzen ditugunok, beti izaera gizatiar eta gizakioa ikusten eta miresten dugu beragan. Protogorasengandik oinordekontzan jasotako munduikuskera biltzen du —gizakia da gauza guztien neurria— eta egoki birsortzen du etorkizunari begira. Don Pío Barojak esaten duenez, “gizakia da gauza guztien neurria, kanpoko ezein objektu ez dago subjektu sentikorragandik berezirik; iritzi guztiak izan daitezke egiazko erlatibozkoaren barruan, eta inteligentzia batekin erlazionatzen den heinean bakarrik dago egia”<sup>4</sup>.

Oinarri deontologikoei dagokienez, Kaiserrek behin eta berriz esaten du usadiazko printzipio eguneratuak ezinbesteko eta ukaezinak direla: legezketasuna, injustuaren aurreko berdintasuna, errugabetasun-presuntzioa, “in dubio pro reo”, printzipio ekologikoa (espazioa eta “delinquency areas” direlakoetara erne), kontrol teorikoaren printzipioa (antzeko gaitasun funtzionalarekin herrialde desberdinetan), “in dubio pro libertate”, faktoreen aniztasun-printzipioa (batzuetan kontrajarriak). Bestalde, eta jurista bat baino gehiagoren kontra, aitortzen du ez dela aski, ezin gaitzkeela lasai geratu printzipio horiek errespetatze soilarekin, baizik eta beharrezko dela, geure buruari eskatu egin behar diogula gizarte-kontrol juridiko-penalen etikotasunaren egiaztapen enpirikoa eta gainbegiratze kritikoa.

Bere analisi enpirikoa kontrol prebenitzaile eta birpertsontaltzailearen eraginkortasuna lortzera zuzendurik dago, baita kriminalitate urritzera ere, baina errepikatzen du bere arreta ezin daitekeela agortu eraginkortasuna lortze hutsean, baizik eta bere begien aurrean eduki behar duela oinarrizko zenbait koordenada: humanitatekoa (herio-zigorren kontra aplikatzekoa), askatasunekoa, zuzenbidezko Estatukoa, bitarteko eta helburuen arteko proportzionaltasunekoa, galdagarritasun eta egokitzapenekoa.

Zuzenbidea eta Moralaren arteko harreman ilun eta nahasteen jakitun, Max Planck Institutuaren Zuzendariak ihes egiten dio moralizazioari, baina balio etiko eta giza eskubideak onartu eta garatu egiten ditu, nola teorian hala praxian. Zehaztasun berezi eta aldi bereko horizonteen hedapenez deskribatzen eta kritikatzten du ustel-

4) P. BAROJA, *Obras Completas*, VII, 1036 or.



keria *Universitas* (1991eko azaroan) aldizkarian argitaraturiko bere azken artikuluetako batean, politika eta ekonomian dabilen ustelkeria. Baina ez da analisi salatzailean gelditzen, baizik eta ustelkeriaren aurkako estrategi sorta zabala proposatzen du; ongi letorkieke gure politika eta ekonomiako jaun-andre batzuei orrialde horiek irakurtzea.

Kriminologiaren helburuei dagokienez, Kaiserren liburuetan behin baino gehiagotan argi eta garbi adierazita agertzen dira: berdintasun handiagoa, justizia handiagoa, askatasun handiagoa eta gizatasun handiagoa lortzea gizabanakoaren mailan ez ezik kolektibitatearenean ere. Herrixka planetario osoan (...auf internationaler Ebene untrennbar...) (*Universitas*, 1992, 1071 or.).

Horregatik, konpromisu bat eskatzen du gizarte-egiturak aldatzearen alde, Kriminologia politikoki ere inplika dadin, neurri bateraino. Une eta toki bakoitzean nagusi den *status quo*aren defendatzaile bihurturiko kriminologoengandik aldentzen den Kriminologia bat bultzatzen du, beraz. Legeria positiboaren analisi kritiko, ideologiko eta enpirikoa sustatzen du. Honek begirunea merezi du, baina ez menpekotasun itsua alde eta aldi orotako hainbat Antigonak aldarrikatzen dutenez.

Gogoeta berezia merezi du bere giltzarriak —persona ororen duintasun “ukiezinak”—. Berari eskaintzen dizkio arreta apartekoak. Horregatik lan egiten du neka-gaitz torturaren aurkako Nazioarteko Kontseiluan.

Aurrez izendaturiko helmugetara iristeko, Kaiserrek ezin zenbatu ahala bide urratzen ditu. Iparra non dagoen erakusten du hisiaz: erantzukidetzeta, gizatiarkuntza, berdintasuna, askatasuna eta justizia. Eta arriskuen aurrean erne jartzen gaitu: baldin eta justiziak ez baditu bere gutxienezko eginbeharrak betetzen, baldin anomia (edo amnistia) gehiegizko bati baimena ematen badio, seguraski pertsonak justizia beren eskutik hartzera joko dute. Terrorismoa seriotasunez balaztatzen ez badu, GAL taldeak sor daitezke, edo beste muturreko terroristak sor daitezke. Narkotrafikoa geldierazten ez bada “defentsa hiritar” osasunkaitz batera, oihan-legera iritsi gaitzke.

Hemen familiaz eta erlijoaz dioen zerbaiti buruzko iruzkina egitea komeni da. Ez du usadiozko familiara itzuli nahi, ez usadiozko gizartera, ezta arau zaharkituetara ere; baina familiaren funtsezko garrantzia azpimarratzen du. Bere helburuak lortzeko familiek gaur egun lortu behar dituzten bitartekoak, besteak beste, hauek dira: haurtzaroan inguruabar kaltegarriak eragotzi, gurasoek jarrera altruistak har ditzatela; beren artean maitasunezko harremanak izan daitezela; eguneroko egitekoak argi bereziak eta orekatuak egon daitezela; instantzia erlijiosoei kontu egin dakiela, eta aisia-denbora eta tokiak ez daitezela zabartu.


Beharrezko da emakumeak bateragarri bihur dezan bere garapen pertsonala, bere lankidetzeta soziala eta famili bizitzari egin behar dion oinarrizko ekarpena. Etxeaz kanpoko erakundeetan ere parte hartu behar du, presondegietakoak baztertu gabe. Agian Kaiserren munduikuskeraren fruitu izan litezke kanadiarren berrikuntza egokietako batzuk, zeinek emakumeak partaidetzeta gehiago izan dezan ahalegintzen diren gartzeletako birpersonalizazio-egitekoetan. Egoki dio Gabriella Gelligerrek: “*We women are becoming a bigger and bigger force in corrections and we are being heard*” (gu, emakumeok, egunean egunean eginkizun garrantzizkoagoa burutzen ari gara

birpertsionalizazioan eta gure ahotsari gero eta jaramon gehiago egiten zaio)<sup>5</sup>. Kaiserrek gogorarazten digu emakumezkoen delinkuentzia batzuetan, besterik uste izaten den arren, gizonezkoen delinkuentzia bera baino oraindik portzentaia handiagoetara iristen da. Hori egiaztatzeko, adibidez, aski da ikustea zenbat pertsona dagoen Alemanian askatasuna kenduta bi sexuetako artean, 1963tik 1988ra bitartean. Argi eta garbi ageri da 6. grafikoan, izan ere bertan ageri bait da portzentaia hori Alemaniako presondegietan dauden barneratu guztiei dagokienez.

---

5) Ikus *Let's Talk*, Correctional Service of Canada, 1992ko otsaila, 17 or.


I. Grafikoa. Kriminologiaren sustrai, bilakaera eta joerak.



Ituria: G. KAISER, *Kriminologie. Eine Einführung in die Grundlagen*, Müller Juristischer, Heidelberg, Karlsruhe, 1976, 19. or.



2. Grafikoa. Gizarte-gatazka eta gizarte-erreferentzien asaldura gatazka-arlo eta erreferentzi eremuengatik.



1.º ARAU-SISTEMA ETA GIZARTE-KONTROL JURIDIKO-PENALA (Policia, Justizia, pena betetzea eta laguntza forga-askatasunaren garaian)

KULTURA ETA GIZARTEA

2.º ETXEBIZITZAREN BALDINTZAK


EGOITZA ETA GIZARTE-INGURUNEAREN EKOLOGIA

3.º FAMILIA ESKOLA LANA LANBIDEA DENBORA LIBREA (Peer group eta besteak)

4.º Infrakzioak gainditzea (besteak beste Zuzenbidearen infrakzioak) Gizarte-gatazka


Iturria: G. KAISER, *Introducción a la Criminología*, 7.º argitalpena, J. Arturo Rodríguez Núñez-en itzulpena, J. Ma. Rodríguez Devesaren gidaritzapean, Dykinson, Madril, 1988, 96. or.

3. Grafikoa. Askatasuna kenduta dauden pertsona guztien kopurua —100.000 biztanleko— Europako herrialdeetan, 1988ko irailaren 1. an.  
(Zutabe ilunagoan prebentzio-presondegian daudenei buruzko zenbakia ageri da).



Iturria: G. KAISER, H-J. KERNER, H. SCHÖCH, *Strafvollzug. Ein Lehrbuch*, Müller Juristischer, Heidelberg, 1992, 78. or.

## 4. Grafikoa. Adin desberdinetako gazte-taldeak, askatasungabeturik Alemanian, 1963-1989.




Iturria: G. KAISER, H-J. KERNER, H. SCHÖCH, *Strafvollzug, Ein Lehrbuch*, Müller Juristischer, Heidelberg, 1992, 335 or.



5. Grafikoa. Askatasungabeturiko pertsonen bilakaera Alemanian, delitu-moten arabera:

*Entwicklung der Strafvollzugspopulation in der Bundesrepublik Deutschland 1970-1989 nach der Deliktsstruktur*




1. Drogak; 2. Bortxakeria; 3. Trafikoa; 4. Sexualitatea; 5. Ebasketak/iruzurrak.

Iturria: G. KAISER, H-J. KERNER, H. SCHÖCH, *Strafvollzug, Ein Lehrbuch*, Müller Juristischer, Heidelberg, 1992, 108 or.

6. Grafikoa. Alemanian askatasuna kentzeko erakundeetan barneko diren gazteen (gizonezko eta emakumezkoen) portzentaia. (Barneko diren pertsonen kopuru orokorrarekiko portzentaia).

*Anteil der Insassen im Jugendstrafvollzug an allen Gefangenen und Verwahrten unterschieden nach Männern und Frauen 1963-1988*



Iturria: G. KAISER, H-J. KERNER, H. SCHÖCH, *Strafvollzug. Eine Einführung in die Grundlagen*, 4.º argit., Müller Juristischer, Heidelberg, 1991, 271 or.